

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

29/2026 Foru Dekretua, abuztuaren 4koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onestea Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 17ko 23/2024 Foru Dekretua aldatzea, zeinaren bidez onetsi ziren Arabako Lurralde Historikoan ingurumen eta klima konpromisoak eta beste kudeaketa konpromiso batzuk hartzeagatiko laguntzen oinarri arautzaileak, eta onestea 2026rako deialdia

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 20ko 32/2023 Foru Dekretuaren bidez, onetsi ziren Arabako Lurralde Historikoan ingurumen eta klima konpromisoak eta bestelako kudeaketa konpromisoak hartzeagatiko laguntzen oinarri arautzaileak eta laguntza horietarako 2023rako deialdia, NPEren plan estrategikoaren babesean.

2023an, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren 2023ko ekainaren 6ko agindu baten bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko labore jasangarrietarako 2023ko laguntzaren deialdia egin zen, 2023-2027ko NPEren plan estrategikoaren esparruan.

2024tik aurrera, labore jasangarrien esku hartzerako deialdia zuzenean egin du Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak, eta, beraz, testu bakar batean sartu behar izan ziren labore jasangarrietarako laguntzen oinarri arautzaileak, gainerako esku hartzeekin batera, eraginik gabe geratu baita Eusko Jaurlaritzaren eta Arabako Foru Aldundiaren arteko lankidetzak hitzarmena, nekazaritza eta ingurumeneko laguntza hori kudeatzekoa. Gainera, 2023an argitaratutako oinarri arautzaileetako gai batzuk argitu eta zehaztu behar izan ziren, eta, sinplifikazio arrazoiengatik eta testua argiagoa izan zedin, errazago ulertzeko, Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 20ko 32/2023 Foru Dekretuaren bidez erabaki zen onetsitako oinarri arautzaileak indargabetzea eta oinarri arautzaile berriak argitaratzea.

Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 17ko 23/2024 Foru Dekretuaren bidez onetsi ziren Arabako Lurralde Historikoan ingurumen eta klima konpromisoak eta beste kudeaketa konpromiso batzuk hartzeagatiko laguntzen oinarri arautzaile berriak.

2025ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzailearen Barne Auditoretzako Zerbitzuak Nekazaritza eta ingurumen konpromisoak nekazaritzako azaleretan: labore jasangarriak izeneko 6501.2 esku hartzeari dagokion 2024ko deialdiaren auditoretza egin zuen. Auditoretza horren ondorioz, plan zuzentzaile bat proposatu dute, oinarri arautzaileak aldatzeko gomendio jakin batzuekin, alde batetik, esku hartze honetan onartutako labore guztiei "ureztapenean" espezifikotasuna gehitzeko, eta, bestetik, berariaz sartzeko, aurrekontu partida agortzeagatik hainbanaketa aurreikusten denean, emakume nekazarien titulartasuna lehenetsiko dela, Emakume Nekazarien Estatutuaren urriaren 15eko 8/2015 Legearen 15. artikulua c letran xedatzen den bezala.

2026. urtean, gure erkidegoko Kudeaketa Agintaritzak aldaketa ez-estragikoko batzuk proposatu dizkio Europako Batzordeari NPEren Plan Estrategikoan (NPEPE). Besteak beste, proposatu da Labore iraunkorren 6501.2 esku hartzearen fitxa aldatzea. Aldaketa hori proposatzearen arrazoia da ureztapen lurretan erremolatxaren laborantza une kritiko batean dagoela, ekoizpenaren beherakadaren ondorioz. Horri gehitzen badiogu araudiak egokitu egin direla, laborearen izurrite eta gaixotasunei aurre egiteko gai aktiboak gutxitu egin direla, eta nekazariak jaso beharreko prezio eskaintzak, labore hori bideraezina da ikuspuntu ekonomikotik. Esku hartze honetan onartu diren beste laboreek ezin dutenez erremolatxa laborearen azalera hori bere gain hartu, laguntza honen konpromisoari atxiki dakizkiokeen beste labore batzuk onartzea proposatzen da. Batzordeak ez du jakinarazitako aldaketen aurka egin, eta Kudeaketa Agintaritzak jakinarazi du aldaketak onetsita daudela, eta martxoaren 3an jarri zirela indarrean.

Horregatik guztiagatik, beharrezko egiten da oinarri arautzaileak NPEPEren fitxaren aldaketara egokitzea eta berariaz jasotzea Emakume Nekazarien Estatutuaren urriaren 15eko 8/2015 Legearen 15. artikuluan xedatutakoa.

Foru dekretu hau izapidetzean kontuan eduki dira administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak xedatzen dituen eta Arabako Foru Aldundiaren xedapen orokorrak egiteko prozedura onartzen duen otsailaren 28ko 6/2023 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotako erregulazio onaren printzipioak. Hala, azaldutako aurrekarietan behar bezala justifikatu da arautze berri baten beharra, eta, gainera, araugintza jarduera proportzionatua da; izan ere, lortu nahi den helburua lortzeko ezinbesteko gutxienez mugatzen da, hau da, nekazaritza eta ingurumeneko laguntzen oinarri arautzaileak eguneratzera. Dekretua idaztean, kontuan hartu dira Arabako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako V. Foru Planaren (2022-2026) inspirazio iturri diren emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioak, bai eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onesten duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuaren edukia eta Emakume Nekazarien Estatutuaren urriaren 15eko 8/2015 Legea ere. Kontuan hartu dira, halaber, Arabako Foru Aldundiko Berdintasun Zerbitzuak horri buruz egingdako txostenean jasotako oharra. Halaber, segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, nahikoa justifikatuta gelditzen delako ordenamendu juridikoan sartzen dela eta hura ematen duen organoa gaituta dagoela. Gardentasun printzipioari dagokionez, ez da urratu, entzundiko eta jendaurreko izapideak bete direlako legez ezarritako epeetan. Efizientzia printzipioaz denaz bezainbatean, proposatzen den arauketak, bere izaera dela eta, ez dakar administrazio karga osagarririk edo alferrikakorik herritar guztientzat, ez eta baliabide publikoen kontsumo handiagorik ere. Sinpletasun eta ulergarritasun printzipioei dagokienez, proposatutako testua modu egituratuan idatzi da, hizkuntza argia eta ulergarria erabiliz.

Nahitaezko txostenak ikusi dira, eta horrenbestez, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 17ko 23/2024 Foru Dekretuaren I. eranskineko 11.1 artikulua, banaketa proportzionala egiteko aukera arautzen duena, eta honela uztea:

11.1 Laguntzak eskuratzeko baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiei erantzuteko aurrekontuko zuzkidura nahikorik ez badago, onuradun guztien artean banaketa proportzionala egingo da, eman beharreko zenbatekoa aurrekontu erabilgarria egokitzeko.

Hala ere, Emakume Nekazarien Estatutuaren urriaren 15eko 8/2015 Legearen 15. artikulua-ren c) letraren arabera, hainbanaketa aurreikusten denean aurrekontu partida agortzen den kasuan, titulartasun mota hauek dituzten ustiatzeko zenbateko osoa jasoko dute, hainbanatu gabe: emakume baten titulartasuna, titulartasun partekatua, emakumeen esku dagoen sozietatearen ehunekoa edo partaidetza gutxienez ehuneko 50 diren pertsona juridiko batena, kideak bi badira, edo gutxienez ehuneko 40 gainerako kasuetan. Ustiatzeko horiei dagozkien laguntzak osorik ordaintzeko aurrekontu kreditua nahikoa ez bada, laguntza horiei ere aplikatuko zaie hainbanaketa.

Bigarrena. Aldatzea Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 17ko 23/2024 Foru Dekretuaren II. eranskinean, Labore Jasagarriari buruzko A.2 apartatuko esku hartzearen barruan, A.2.2 apartatua (Dirulaguntza jasotzeko baldintzak eta onuradunen konpromiso baztertzailak), laguntzan onargarriak diren laborantza taldeei dagokienez. Lehenengo lau gidoiek honela geratzen dira idatzita, eta gainerako apartatua aldatu gabe:

— Labore multzo hauetakoren bateko ekoizleak izatea:

- 1. multzoa.— Gizakiok jateko aledun lekaleak, lur ureztatueta udan lantzen direnak.
- 2. multzoa.— Lur ureztatueta udan lantzen diren baratze estentsiboak.
- 3. multzoa.— Hazitarako patata eta gizakiok jateko patata lur ureztatuan.
- 4. multzoa.— Azukre erremolatxa lur ureztatuan.
- 5. multzoa.— Ekilorea eta artoa lur ureztatuan Bi labore horiek ez dute urteko primarik lotuta hektareako. Konprometitutako azalerari urtero eusteko konpromisoa betetzeko soilik hartzen dira kontuan.

— Ustiatégian aurreko paragrafoan aurreikusitako labore multzoaren labore estentsiboen gutxieneko azalera 2 hektareako izatea, eta hektarea bat baino gutxiagoko labore multzoek ezin izango dute laguntza jaso.

— Ustiapen koadernoan eguneratuta edukitzea, fitosanitarioen, ongarrizteen eta ureztatzeen arloan jasotako aholkularitza teknikoaren arabera.

— Zuzendaritza tekniko:

Ustiatégiak teknikari arduradun baten zerbitzuak izan behar ditu. Teknikari horren egin-kizunak laboreen garapena ingurumen jasangarritasunerako irizpideen arabera zuzentzea, kontrolatzea eta aholkuak ematea izango dira, eta nekazariak teknikariaren jarraibideak ezartzeko konpromisoa hartu beharko du. Ez zaie kontratu berririk eskatuko 5. taldeko laboreei.

/.../

Hirugarrena. Aldatzea Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 17ko 23/2024 Foru Dekretuaren II. eranskinean, labore jasangarriei buruzko A.2 apartatuko esku hartzearen barruan, A.2.3.1.1.1 apartatua (Onuradunen nahitaezko konpromisoen barruko oinarritzko konpromisoak), ongarritze konpromisoari dagokionez. Lehenengo gidoia honela idatzita geratzen da, eta gainerako apartatua aldatu gabe:

— Ongarritzea: lurzoruaen analisi fisiko-kimikoa erabiliko da makronutrienteen beharrak kalkulatzeko oinarri gisa, nitrogenorako izan ezik. Gutxienez analitika bat eduki beharko da laborantza unitate bakoitzeko. Ez zaie analitika hori eskatuko 5. taldeko laboreei. Lurzoruaen analisi fisiko-kimikoa egiteko gutxieneko aldizkakotasuna lau urtekoa da, eta, beraz, gehienez 4 urteko antzintasuna duen analitika bat eduki beharko da. Laborantza unitatetzat hartuko da landutako azalera unitatea, lurzati batek edo gehiagok osatua —lurzati horiek elkarren ondoan egon daitezke, edo ez—, zeinetan labore bera egiten baita, gutxi gorabehera aldi berean antzeko laborantza praktikei jarraituz eta titular bakar batek kudeatuta.

/.../

Laugarrena. Aldatzea Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 17ko 23/2024 Foru Dekretuaren II. eranskinean, labore jasangarriei buruzko A.2 apartatuaren esku hartzearen barruan, konprometitutako azalaren A.2.3.2 apartatua, eta honela uztea:

A.2.3.2. Konprometitutako azalerak:

— Konprometitutako azalerak urtero mantendu behar dira. Konprometitutako azalera bat etorriko da konpromisoa indarrean dagoen bitartean ordaindutako gehieneko azalerarekin. 2026ko kanpainatik aurrera, konprometitutako azalerari urtez urte eusteko, kontuan hartuko dira lur ureztatuko ekilore eta arto laboreen NPEren kontrolen ondoren eskatutako eta zehaztutako azalerak.

— Urtero, hasiera batean konprometitutako azalera handitzeko aukera izango da. Urteko azalera gehikuntzak ordaintzea aurrekontu baliabideen mende egongo da. Gehikuntza hori diruz lagundua bada, nekazaritza eta ingurumen kontratu sinatuaren iraupen epea amaitu artean eutsi beharko zaio azalera konprometitu berriari.

— Nekazaritza eta ingurumeneko konpromisoa indarrean dagoen bitartean, konprometitutako gehieneko azalera gehienez ehuneko 20 murriztu ahal izango da.

Bosgarrena. Onestea 2026. urterako deialdia, xehetasun hauen arabera:

a) Deitutako esku hartzeak eta lehentasun taldeak:

— Nekazaritza eta ingurumen konpromisoak nekazaritzako azaleretan:

- Esnetarako behien arau teknikorako ekoizpen integratua (NPEPEn esku hartzeko kodea: 6501.1).

- Labore jasagarriak (NPEPEn esku hartzeko kodea: 6501.2).

- Biodibertsitaterako erlezaintza (NPEPEn esku hartzeko kodea: 6501.4).

— Nekazaritza ekologikoko nekazaritza eta ingurumen kudeaketako konpromisoak (NPEPEn esku hartzeko kodea: 6503).

— Baliabide genetikoak kontserbatzeko konpromisoak (NPEPEn esku hartzeko kodea: 6505.1): tokiko animalia arrazak kontserbatzea.

2026ko deialdian, lehentasun talde guztietako eskaerak onartu ahal izango dira.

b) Kreditu erreserbak deialdia ebazteko, bai eta, hala badagokio, esku hartze eta/edo lehentasun talde bakoitzerako ere:

3.400.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2026ko gastu aurrekontuko "40101. G/414400/47900418 Nekazaritza eta ingurumeneko neurriak 2026" partidaren kontura, 2027ko urterako; 2027. urtean ordainduko da.

2026ko deialdian ez da erreserbarik ezartzen lehentasun taldeen mailan, ezta esku hartzearen mailan ere.

Kreditu horiek zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango dira, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 21. artikuluan ezarritako mugen barruan, baita aurrekontu partidaren edozein arrazoiengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez ere. Zenbateko gehigarri horiek neurri bakoitzean hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko ehunekoak izan daitezke gehienez ere.

Deialdi honetako laguntzetara bideratzen diren baliabide ekonomikoak Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailaren aurrekontu kredituetatik aterako dira, eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzarekin (LGENF) batera finantzatu ahal izango dira, ehuneko 80an.

c) Eskaerak aurkezteko epea eta lekua.

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzak jasotzeko eskaerak abenduaren 27ko 1048/2022 Errege Dekretuaren IV. tituluan xedatutako eskaera bakarrean sartuko dira (2023tik aurrera Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoaren esparruan zuzeneko ordainketen esku hartzeak aplikatzeari eta betekizun komunak ezartzeari buruzkoa eta kudeaketa eta kontrol sistema integratuaren eskabide bakarra arautzeari buruzkoa).

Nolanahi ere, aintzat hartuko dira eta baliozkoak izango dira 2026ko otsailaren 1etik aurreko paragrafoan aipatutako eskaera bakarra aurkezteko epea amaitu arte xede horrekin aurkeztutako laguntza eskaerak.

Eskaera bakarra aurkezteko epea luzatzen bada, zuzenean luzatuko da denbora bererako laguntza lerro hauetarako eskaerak aurkezteko eta aldatzeko epea.

Eskaera Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren eskualdeko nekazaritza bulegoetan egingo da, edo <https://npb-pac.apps.euskadi.eus/SgaCac> web atariaren bidez. Atari horretara ziurtagiri digitalaren bidez sartu beharko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 16.4 artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe (urriaren 1eko 39/2015 Legea).

d) Laguntzaren gehieneko zenbatekoa ustiategi eta/edo esku hartze bakoitzeko, hala badagokio:

Deialdi honetan, laguntzaren gehieneko zenbateko bat ezartzen da ustiategi eskatzaile bakoitzeko, kontuan hartuta kasuan kasuko ustiategi mota (titular indibiduala edo ustiategi elkartua) eta II. eranskineko esku hartze kopurua edo "tokiko animalia arrazak kontserbatzeko" laguntza jasotzeko eskubidea duten eskatutako esku hartzearen abere arrazen kopurua edo azaleraren arabera laguntza esku hartzeetan laguntza jasotzeko eskubidea duten eskatutako laborantza taldeen kopurua:

	ESKATUTAKO ESKU HARTZEEN, ARRAZEN EDO LABORANTZA TALDEEN KOPURUA		
Ustiategi eskatzaile mota	1	2	3 edo gehiago
Titulartasun indibiduala ustiategia	18.000,00 euro	20.000,00 euro	21.000,00 euro
Titulartasun elkartuko ustiategia	25.000,00 euro	27.800,00 euro	29.200,00 euro

Ustiategi bat titulartasun elkartukoa dela jotzeko, beharrezkoa izango da partaidetza handiena duen bazkidearen partaidetza ehunekoa ehuneko 60 edo txikiagoa izatea, ustiategiko bi bazkide badira; edo ehuneko 50 edo txikiagoa, hiru bazkide edo gehiago badira. Aurreko irizpidea betetzen ez den kasuetan, ustiategia titulartasun indibiduala dela ulertuko da.

Seigarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

Azken xedapena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko abuztuaren 4a

Diputatu Nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

NOEMÍ AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNÁNDEZ SARABIA